

**IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA:** TRANSFORMACIONES Y MUTACIONES SOCIALES, ECONÓMICAS Y CULTURALES EN LA GLOBALIZACIÓN

**Irakaslea/Profesor/a:** Gorka Moreno Márquez

**Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura**

Ikastaro honen helburu nagusia da egungo gizarteek dituzten eztabaida eta desafio nagusien erradiografia orokorra egitea. Hori horrela, hurbilketa soziologiko bat egingo dugu gure bilakaera soziala baldintzatzen ari diren auzietara, den-denak lotuta gure gizartearen egitura sozialarekin: kolektiboaren eta indibidualaren arteko lotura (egituraren eta agentziaren artekoa), modernitatearen instituzio nagusien eraldaketak (enplegua eta lan-merkatua, generoa eta familia, eta estatu-nazioa). Hortik abiatuta, egungo gizarte eztabaidei zuzenean lotutako gogoetak egingo ditugu: globalizazioa-desglobalizazioa, nazioarteko migrazioak, eskuin muturraren oldarraldia, woke diskurtsoaren inguruko eztabaida, etab.

**Gaitasunak/Competencias**

- Teoria soziologikoaren eztabaida nagusiak ezagutzea, bai historikoki, bai gaur egun.
- Modernizazio-prozesuaren eta modernitatearen inguruan hausnartzea, gizarte-egiturak bereziki azpimarratuz.
- Gure gizartearen gizarte-egituraren gertatzen ari diren aldaketa nagusiak planteatzea: enplegua, generoa, estatu-nazioa.
- Egungo gizarte-dilema eta -eztabaida handiei buruz hausnartzea: globalizazioa, identitatea(k), etab.

## **Edukiak/Contenidos**

Ikastaroaren edukiei eta egiturari dagokienez, hainbat gune edo gai bereiziko ditugu, saioak egituratzeko balioko dutenak.

1. gaia. Modernitatea, norbanakoaren askatasunerako espazioa.

- a. Ilustrazioa, modernitatearen ardatz.
- b. Gizarte tradizionaletik gizarte modernora. Norbanakoaren askatasunerantz.
- c. Modernitatearen instituzioak. Enplegua, familia eta estatu-nazioa.
- d. Instituzioen higadura. Kontzeptu zonbiak.

2. gaia. Enplegua eta lan prekarietatea. Egonkortasunetik ezegonkortasunera.

- a. Enplegua, egonkortasun eta ziurtasun elementua.
- b. Enplegua, ezegonkortasun eta ziurgabetasun elementua.
- c. Lan errealitate berriak: UBER
- d. Teknologia berrien eta enpleguaren inguruko eztabaida.
  - i. Robotizazioa.
  - ii. Adimen artifiziala.
- e. Klase sozial berri baterantz? Prekariatuak.

3. gaia. Generoa eta emakumearen rola familian.

- a. Emakumea eta modernitatea: askatasun (handiagoaren) historia bat.
- b. Rol aldaketa. Kontziliazioa eta berdintasuna.
- c. Zaintzaren kate globalak.

4. gaia. Estatu-nazioa, bizi espazioa. Egiturazko aldaketak.

- a. Estatu-nazioa eta nazionalismo metodologikoaren printzipioa.
- b. Estatu-nazioaren higadura: goitik (globalizazioa) eta behetik (prekarietatea, dibertsitateak eta demokraziaren krisia).
- c. Globalizazioa eta desglobalizazioa. Globalizazioaren irabazleak eta galtzaileak.
- d. Nazioarteko migrazioak. Dibertsitate berriak.
- e. Eztabaida ideologikoak.

- i. Balio dute ezkerak eta eskuinak errealitate berria ulertzeko?
- ii. Woke diskurtsoa, antiwoke diskurtsoa eta kantzeldazioaren kultura.

### **Metodologia/**Metodología

Ikastaroa egituratuko da saio magistraletan eta praktikoetan. Hasteko, eremu soziologikoko egungo kontzeptu eta eztabaida nagusiak planteatuko ditugu, galderak eginez uneoro, eta eztabaida sozializatuko da, eskolak izan daitezen parte-hartzaileak eta partaidetuak. Era berean, parte-hartzea sustatzeko tresna metodologikoak erabiliko ditugu: dokumentalak, rolak simulatzeko ariketak, etab.

### **Bibliografia/**Bibliografía

Bauman, Z. (2006). *La modernidad líquida*, Fondo de Cultura Económica, Madrid.

Bauman, Z. (2013). *Vida líquida*, Austral, Barcelona.

Bauman, Z. y Tester, K. (2002). *La ambivalencia de la modernidad y otras conversaciones*, Paidós, Barcelona.

Beck, U. (2008). *La sociedad del riesgo mundial. En busca de la seguridad perdida*, Paidós, Barcelona.

Beck, U. y Beck, E. (2020). *La individualización. El individualismo institucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*, Planeta, Barcelona.

George, S. y Chomsky, N. (2003). *La globalización de los derechos humanos*, Crítica, Barcelona.

Giddens, A. (2006). *Sociología*, Alianza, Madrid.

Kaufmann, J.C. (1999). "La ropa sucia" en Beck, U. (Coord.). *Hijos de la libertad*, Fondo de Cultura Económica, México D.F.

Lamo de Espinosa, E. (2001). "La Sociología del Siglo XX", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, nº 96, pp. 21-49.

Piketty, T. y Sandel, M.J. (2025). *Igualdad. Qué es y por qué importa*, Debate, Madrid.

VV.AA. (2016). *El libro de la Sociología*, Akal, Madrid.